

**hh**  
hik hasi

**udako  
topaketak**



**2015**



**Donostian, uztailak 1, 2 eta 3**  
**Leioan, uztailak 6, 7 eta 8**

Goizez  
9:00 -14:00

# XVI. hik hasi udako topaketak

2015eko uztailak 1, 2 eta 3 DONOSTIAN

2015eko uztailak 6, 7 eta 8 LEIOAN

**hh**  
**hik hasi**

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Hezkuntzaren Teoria  
eta Historia Saila**

# Sarrea

**hik hasi** proiektuak hamaseigarren urtez antolatu ditu **Udako Topaketa Pedagogikoak** EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin batera, uztailaren 1ean, 2an eta 3an Donostian; eta EHUko Leioako Irakasle Eskolarekin batera, berriz, 6an, 7an eta 8an, gaurkotasan handia duten gaiei buruzko ikastaroak egin ahal izango dira euskaraz.

Ikastaroak eskaintzeaz gain, hainbat arlotako irakasleak elkartzeko eta beren esperientziak trukatzeko topaleku izatea ere nahi dugu. Bertan, hausnarketa, asmo, ideia, proiektu eta berrikuntzak plazaratuko dira.

Aipatutako ikastaro guztiak goizez egingo dira. Arratsaldeetan, hala ere, tailerrak, aurkezpenak eta eztabaida saioak izango dira.

Aurten, lehen aldiz, Donostiatik kanpo ere egingo ditugu Topaketak, zehazki, EHUren Leioako Irakasle Eskolan.

## Ordutegia

Ikastaroak: 9:00etatik - 14:00etara

Arratsaldeetako saioak, Donostian soilik: 16:00etatik - 18:30era

Topaketak **Donostiako EHUren Pedagogia Fakultatean** eta **Ekintza ikastolan** izango dira. Era berean, eta, lehen aldiz, **EHUren Leioako Irakasle Eskolan** egingo dira.

## Kopuru mugatuko ikastaroak

Ikastaro horietan aurrena izena ematen dutenek izango dute lehentasuna.

# Pikler-Loczy: haurra ukitzen dugunean

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

**Haurtxoaren gorputza ukitu, ume txikiaren gorputza ukitu**

## **Norentzat**

0-3 urte bitarteko haurrekin harremana dutenentzat.

## **Uztailaren 1ean**

- Sarrera eta ongietorria.

- **Nire gorputza eta ni.**

\* Anna TARDOS. Budapesteko Pikler-Loczyko arduraduna.

- **Koreografia, ikas daitekeena.**

\* Judka Kelemen. Budapesteko Pikler-Loczyko hezitzailea.

## **Uztailaren 2an**

- **Handia naiz jada: nola zaindu nazakezu kontu handiz.**

\* Anna TARDOS. Budapesteko Pikler-Loczyko arduraduna.

- **Galdera-eztabaida.**

\* Anna TARDOS. Budapesteko Pikler-Loczyko arduraduna.

\* Judka Kelemen. Budapesteko Pikler-Loczyko hezitzailea.

## **Uztailaren 3an**

- **Loa eta konfiantza**

\* Judka Kelemen. Budapesteko Pikler-Loczyko hezitzailea.

**Haurrak heldua ukitzen duenean**

\* Judka Kelemen. Budapesteko Pikler-Loczyko hezitzailea.

# NIK irakastetik BERAK ikastera

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Azken urteetako hezkuntza, psikologia eta neurozientzietako ikerketek arrazoitzen dutena izenburu laburrean islatzen da; non ezagutzak irakasleak irakastetik, ikasleek aktiboki, elkarrekin eta intentzionalki deskubritzen, interpretatzen eta sortzen duten.

Zer egiten du irakasle batek bere ikasle guztiek ikas dezaten? Nola antolatu genezake ikaste testuinguru hau? Nola eta zergatik sustatu elkarren arteko laguntzak? Ohiko zalantzetan jasotzen den bezala marko aldaketa honek gure egitearen oinarritzko definizioaren eraldaketa dakar, irakasle izate eta egite eratan eragiten du baina nabarmenena gure ikasleen ikastea eta horren ongizatean eragiten duela da.

Ikastaro honetan gako hauek esploratzea proposatzen da. Horretarako IKASKIDE-TZAN oinarritutako ikaste testuinguru bat bizi eta bertako elementuez elkarrekin hausnartzeko aukera eskaintzen da.

## Norentzat

Irakasle eta eskola kulturaren garapenean interesa duen ororentzat zuzendua dago: HH, LH, DBH; Batxilergoa edo Lanbide Heziketa.

## Metodologia

Oinarrian izango dugun metodologia **IKASKIDETZA** izango da, bertan, hausnarketa partekatua erabiliko dugu bizitzen dugun esperientziaren estrategia eta helburuak identifikatzeko.

**Prozesuan zehar dinamika desberdinak erabiliko ditugu:** talde izaera eraikitzeko, taldeki-deen arteko kohesioa indartzeko, konfiantza giroa sortzeko, komunikazio estrategiak erabiltzeko, hausnartzeko estrategiak aplikatzeko...

## Izaera

Ikastaro honen izaerak **alderdi praktikoak eta teorikoak** uztartzen ditu. Gidaturiko esperientzia bat bizitzeko aukera izango dugu, bertan ikasleen ikastea bermatzen duten testuinguruaren oinarritzko elementuen identifikazioa sustatzeaz gain tresna, baliabide eta garaturiko praktikak ezagutzeko aukera izango dugu.

\* Ikaskide taldea. HUHEZI Mondragon Unibertsitatea.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Gizarte Zientziak – Lantegia:

## hainbat jarduera eta orientabide praktikoa

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Bada ikasleengan jakinmina sortzeko modurik. Bada erarik hainbat gaitasun umore onez lantzeko. Ez da hain zaila ikasleari ordubeteko klasea motz egiteko. Ikasleek bere aldetik jarri beharko dute... baina irakasleok bilatu dezakegu. Oro har, lor liteke, eta beti ere nahiko genukeena lortuz, elkar lagun izanez eta errespetua inoiz galdu gabe.

### Norentzat

Gizarte Zientzietako irakasleentzat zuzendua bada ere, edonolako irakaslerentzat baliagarri litzateke.

### Gaiak

Geografia eta Historia oinarritzat hartuta, Euskara, Logika, Matematika, Kultura, Folklore, Elkartasuna, Jakinmina, Jakinduri zientifikoa, Antolakuntza, Numismatika, Denbora-Espazioa, Malgutasuna, Egia, Musika, Gatazken azterketa, Gatazken konponbideen bila, Konpetentziak, Artea, Norberetasuna, Soluzio-irtenbide bizkorak, Autokritika-Autoebaluazioa...

### Metodologia

Ikastaroaren izaera erabat praktikoa izango da. Konklusio teorikoak lor litezke.

\* Mikel LEGORBURU ARZAMENDI. Historialaria, 35 urtez irakasle.

\* KOPURU MUGATUA \*

# Pedagogia Sistemikoa ikasgelan

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Pedagogia Sistemikoak hezkuntza errealitate zabala hartzen du bere baitan, eta hezitzailearen jarreran jartzen du arreta berezia. Pedagogia Sistemikoak ikaslearen errealitatea bere osotasunean hartzen du, dena delako abiapuntua onartuz. Honela, hezitzaileak ikasgelan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) "dagokion lekua hartzen duenean" aukera ezberdinak irekitzen zaizkio.

## Norentzat

Hezkuntza komunitatean diharduen profesionalentzat, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenarentzat, gurasoentzat eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona ororentzat.

## Landuko diren gaiak

- Pedagogia Sistemikoa: ikuspegi sistemikoa eta ordenaren txertaketa.
- "Zer da dagokidan lekuan egotea?". Sistema guztiak berezko dituzten barneko hurrenkera irizpideak.
- Sistema ezberdinak. Familia eta eskola. Familian kokatzearen garrantzia.
- Ikasle bakoitzaren oinarriko beharrak.
- Hezitzaileak bere ikasleen abiapuntua ezagutzeko baliabideak.
- Ikasleen eta hezkuntza komunitatearen aniztasuna, jatorria eta testuingurua.
- Hezkuntzako profesional gisa, "Zein da nire errealitatea, zeintzuk dira nire funtzioak, ardurak eta nire mugak?"
- Elkarriketak familiekin, protokoloa.
- "Zer da autoritate izatea?" Autoritatea, sistemaren arduratik eta ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzetik.

## Metodologia

Gaitegia garatzeko azalpenak modu teorikoan zein praktikoan, dinamikak proposatuz egingo da. Praktika konkretuak banaka, talde txikitan eta talde osoan.

## Izaera

Teoriko eta praktikoa izango du.

\* **Aitziber ESNAOLA ARRIBILLAGA.** Titulazioz Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua. Egun Hezkuntza Proiektu "alternatibo" batean dihardu lanean.

\* **Larraitx MENDIZABAL HUITZI.** Titulazioz Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakasle (EHU), Psicoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikokoan, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua.

# Dolu, galera, aldaketa eta gabezietatik, zer baliotsu atera dezakegu?

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Maite ditugun pertsonak, animaliak, gauzak, lekuak, gaitasunak edo idealak galtzen ditugunean, gure sineskerak eta bizitza, beste modu batean antolatzeko beharra sortzen zaigu. Krisiek eta egoera traumatikoek, puskatze bat eragin dezakete pertsonarengan eta bere bizitza ulertzeko eretan. Desegin eta ondorengo berreraikitzeak berekin ditu min emozionala eta egokitze beharra. Ikastaro honen funtsa da dolua eta galerari buruz hausnartzea eta prozesu berriak berarekin dakarren abe-rastasuna jasotzeko baliabideak eskaintzea.

## Norentzat

Irakasleentzat, osasun arlokoentzat, gurasoentzat eta hazkunde pertsonalarekin interesa dutenentzat.

## Helburuak

Dolu, galera eta mina eramateko baliabideak eskura jartzea.

## Edukiak

Galeraren aurrean zein prozesu irekitzen zaigu, aldi desberdinak eta sortzen diren sentimendu eta beharrak.

Mina, negarra eta sentimendu desatseginen trataera gure gizartean. Sentimenduen errekonozimendua, lagun egitea eta espresatzea.

## Metodologia

Alderdi teorikoa elkarriketa bitartez landuko da. Galderen bitartez iritziak eta hausnarketa sustatu nahiko dira, eta elkarrekin ikasteko giroa. Praktikatzeko tekniken artean izango dira: arnasketa, erlaxapena, sinbolizatzeo erak (idazkera, marrazketa, irudikatzea, norberak asmatu ditzaken erritoak eta gizartean daudenak). Umeekin lan egiteko marrazketaren eta ipuinaren erabilera erakutsiko dira. “Yoga”, “Focusing” (sentipenak fokatzeko sinbolizatzeo, esan nahi du) eta “Komunikazio ez bortitza” diziplinen oinarriak erabiliko dira.

\*Edurne SALEGI. Yogako irakaslea.

\* *KOPURU MUGATUA* \*



# Eskola libre eta demokratikoak:

## etorkizuneko gizartea alda dezakeen heziketa-eredua

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Hezkuntza ez da gizarte sistematik eta haren balio eta helburuetatik aparte uler daitekeen zerbait. Aitzitik, sistema mantenduko duen herritarra fabrikatu / doktrinatzeko eginkizunean hezkuntza-sistemak daukan zeregina funtsezkoa eta ezinbestekoa da. Horrela, egungo sistemaren gaineko hausnarketa egitea zinez garrantzitsua da, bertako heldu / haur arteko harremana osasuntsuagoa eginez, haurra benetako protagonista duen eskola demokratikoagoa sortze aldera.

### Norentzat

Maisu-maistra eta irakasleentzat. Haur-hezitzaileentzat. Eskolatzeko adina duten haurren gurasoentzat, eta interesa duen edonorentzat.

### Edukiak

1. Haurraren heziketa. Familia eta eskola.
2. Haurrak hezi edo haurrak hazi? Haurraren garapena ulertzeko moduak: Haurra kulturari egokitu vs. Kultura haurraren beharrei egokitu. Haurraren modelatzea vs. Haurraren auto-erregulazioa.
3. Sozializatzea = eskolatzea?
4. Haurtzarora eta Hezkuntza sistemaren historia laburra.
5. Indarrean dagoen eskola ereduaren gaineko hausnarketa. Harekiko diskurtso kritikoa.
6. Hezkuntza sistema eta ideologia.
7. Haurrak behar duen eskola. Haurraren beharretara egokitutako eskola. Eskola osasungarrien ezaugarriak. Gakoak.
8. Hezitzailearen egitekoa.
9. Haurra erdigune. Bere erritmo, garapen-une eta indibidualtasunarekiko errespetua.
10. Eskola-kontzeptua aldatu nahi izan duten pedagogiak eta pedagogoak. Montessori, Freinet, Freire, Illich, Neill, Steiner...
11. Eskola libre eta alternatibo eredugarriak munduan. "pesta", summerhill...
12. Eskola libreak Euskal Herrian. Proiektu hauetako baten arduradunekiko solasaldia.

### Metodologia

Irakaslearen saio teorikoekin batera, taldeko eztabaidak/ hausnarketak/ dinamikak ere izanen du rokia. Gainera, bi orduko atelier praktikoa burutuko da. Eskola alternatibo bateko kideak etorriko zaizkigu euren proiektua aurkeztera.

\* Ane ABLANEDO LARRION. Bigarren Hezkuntzako irakaslea. NUPeko irakasle asoziatua. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua.

# DALCROZE ERRITMIKA metodologiara gerturatzea

## Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian. 9:00-14:00

Jaques-Dalcroze Erritmika (Rythmique Jaques-Dalcroze edota Dalcroze Eurythmics) musikaren irakaskuntzarako munduan aitorpen handiena daukan eta zabalduen dagoen pedagogia aktiboetarikoa bat da. XIX. mendearen ondarrean izena ematen dion gizonak berak Genevan (Suitzan) metodologia hau garatzeari ekin zion, eta ordutik XX. mendean zehar mundu zabalean hedatu eta herrialde ezberdinetan Dalcroze elkarte eta profesional asko ugaltu dira (Suitza, EEBB, Japonia, Australia, Belgika etab.). Euskal Herrian sortze bidean aurkitzen da.

### Norentzat

Musika irakasle edota mugimenduaren aplikazio jakin bat bilatzen duen ororentzat zuzendua.

### Edukia

Musika eta irakaslearen esanak jarraituz, hartzaila musika bera edo ezaugarri konkretuak integratzen joaten da, hasieratik maila intelektualera jo beharrean lehenik musika biziarekin eta sentiaraziz, ondoren integratuz eta zentzua emanez, eta azkenik aurrez egindako hori guztia musika lengoaiaren kodifikazio arruntera (idazkera eta kontzeptuetara) eta ulermenera eramanez.

Pilota, uztai, klabe, pandero, soka... eta nahi beste elementuren erabilera eginez, eta sarri psikomotritzitate kutsua eduki dezaketen ariketak burutuz (polirritmiak oin eta eskuen artean, lateralizazioaren lanketa, objektuak eskuetan edukiz mugimendu sormena lantzea, espazioaren kudeaketak...), irakasleak zuzenean sortu ohi duen musikarekin erabateko konexioan era guztietako musika edukiak lantzen dira: izaera erritmikoa dutenak, izaera melodikoa dutenak, izaera harmonikoa dutenak, esaldi luzera edo formari dagozkionak, dinamika edota agogikari dagozkionak...

Dalcroze Errimtikak musika era oso atsegin eta ludiko batean barneratu eta ikasteko aukera paregabea eskaintzen du eta adin guztietarako balia daiteke, txikienetatik hasi eta 3. adineko pertsonenganaino.

### Metodologia

Metodologia honen ezaugarri nagusia musika eta mugimenduaren artean egiten den lotura estua da. Gorputzaren eta espazioaren erabilera erabatekoa eginez ikasleari musika sakonki biziarekin zaio. Horretarako, irakaslea lortu nahi duen helburua pianoan zuzenean inprobisatuz jotzen duen musikaz baliatzen da.

### Izaera

Ikastaro honetan alderdi praktikoa izango da nagusi (Dalcroze Erritmika bidezko musika klaseak jasoko dira), baina azalpen teorikoak ere jasoko dira, baita bideo batzuk ikusi eta aztertu ere.

\***Beñat RALLA YUSTA.** Herri Lanetako Ingeniari Tekniko gisa lanbidea utzi eta Musikaren Pedagogia ikasketak burutu ostean, izako ekainean Genevako Goi-mailako Musika Ikastegian Dalcroze Errimtikaren gradu eta master ikasketak eskuratu zituen.

Egun Lehen Hezkuntzan musika irakasle ari da eta proiektu artistiko baten sormen prozesuan murgilduta dago.

# Nerabeak eta hezkidetzak: nola jarri zaintza erdigunean

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Hezkidetzak pertsonen garapen osoa lortu nahi du. Ahalegin horretan, hezitzaile eta irakasleek eman nahi dugun hori jasotzea merezi dugu: arreta, zaintza, ulertkortasuna, babesa... Urratsak ematen ari bagara ere, guztientzako tratua ona oraindik ez dago bermatua. Zer gertatuko litzateke hezkuntza komunitatearen erdigunean zaintza jarriko bagenu?

Tailer labur honen bidez, horretarako oinarri eta esperientzia batzuk partekatu nahi ditugu. Hemendik abiatuta, nerabeekiko harremana berrikusiko dugu. Nerabezeroaren bizipenak eta hari buruzko aurreiritzien errepaso eginez, eta aurrera begirako ildo edo irizpide hezkidetzailleak adostuz.

## Norentzat

Nerabeekin lan egiten duten hezitzaile, irakasle zein bestelako eragileentzat.

## Landuko diren GAIAK

- Hezitzaileen beharrak: pozik al goaz lanera?
- Neska eta mutilen beharrak: zer dakarte motxilan?
- Lubakietatik irtenda, elkarren zaintza posible al da?

## Metodologia

Parte-hartzailea, praktikoa eta bizipenetan oinarritua.

## Izaera

Teorikoa izango da, baina eguneroko praktikari zuzendua.

ARREMANITZ kooperatibako hezkidetzak eta sexu-hezkuntzan adituak:

\*Edurne MENDIZABAL TOLOSA.

\*Axi BAGLIETTO GABILONDO.

\*Ibon ARRIZABALAGA DEMINGO.

\* KOPURU MUGATUA \*

# MUSICOSOPHIA

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Irakasleok, egunero, ikasle adigabeak eta galduta dabiltzanak topatzen ditugu, kostea egi-ten zaiena entzutea, konzentratzeko zailtasuna dutenak, atentzio falta dutenak, ez dakitenak erlaxatzen edo ikaskuntza ahalbidetzen duen lasaitasuneko giroa mantentzen. Arazo horiek ikaskuntzaren eremu eta hezkuntza maila guztietan ematen dira. Ikastaro honekin, oinarrizko gaitasunak lantzeko metodo erraza eta motibagarria aurkeztu nahi dut.

## Zer da MUSICOSOPHIA?

- Musika klasikoa kontzienteki entzuteko metodoa.
- Bereziki entzuleari zuzendutako metodoa. Entzuleak ez du musika ikasketarik behar.

## Norentzat

Musikako irakasleentzat oso egokia izanez gain, musika ikasketarik gabeko irakasleentzat ere oso aberasgarria da.

## Helburuak

- Musicosophia metodoa ezagutaraztea.
- Bildutako eta praktikan jarritako materiala eta esperientzia irakasleei zabaltzea.

## Edukiak

- 1.saioa:** Musicosophia metodoaren pausoak. Entzulearen papera musikan.
- 2.saioa:** Entzun, aditu, ulertu. Musika eta isiltasuna.
- 3.saioa:** Musika eta sormena. Jolasa eta adierazpena.

## Metodologia

Metodologia **aktibo eta partehartzaile** baten bitartez, partaideak metodoaren pausoez jabetuko dira, musika-lan eta jolasen bidez praktikan jartzen duten bitartean. Horrez gain, edukietan zehaztuta dauden gaien inguruan hausnarketa egingo dugu.

\* **Ainhoa PINTOS MARTIKORENA.** Piano-jotzailea, Donostiako Maria Reina Eskolako musikako irakaslea eta Nazioarteko Musicosophia Eskolako irakaslea.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Haurrentzako masajea

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

## Ukitu + sentitu = kokatu

1. eguna: UKITU
2. eguna: SENTITU eta KOKATU

### Norentzat

Haur Hezkuntzako irakasleentzat, gurasoentzat eta, oro har, haur txikiekin ari direnentzat.

### Edukia

#### Masajea 0 urtetik 3 urtera bitartean

- Elkarki larruazalak ukituz egoteko premia.
- Larruazalaren muga sentitzeko premia.
- Gorputz osoa larruazalaren babespean integratzeko premia.
- Hori guztia haurraren erritmoa eta premiak errespetatzen, eta haurraren larruazala, eta organoen edo segmentuen funtzionamendua (batetik heltze prozesu zefalo-kaudalean eta bestetik kaudo-zefalikoan) estimulatzen duen pertsonak emana.
- Masajea; komunikazio modulatzailen estimulazioaren bitartekaria: ikusmena, entzumena, larruazala, mimika, ahotsa, alaitasuna, eta abar.
- Erditze traumatikoaren ondoko masajea.
- Masaje reichiar zefalo-kaudala.
- Masaje Shantala kaudo-zefalikoa.
- Oinen masaje erreflexua.
- Masaje lehenengo egunetik bertatik.
- Masajea lehen 4 hilabeteetan.
- Masajea 4 hilabeteetik urte batera.
- Masajea eta berraseguratzeko mugimendua urte betetik 3 urtera bitartean.
- Giro lasaia eragiten duten egoerak sortzea, helduari egoten lagunduko diotenak, haurrak ukitzeko eta aldi berean “ukitu”a izateko esperientzia naturala bizitzeko, eta, elkarriketa tonikoa oinarri hartuta, besteak ematen dizkion erantzunen arabera aldatzen joateko haurrari premietan laguntzekoa.

### Metodologia

Teoriko-praktikoa izango da.

\* Ramon MAUDUIT. Psikologoa eta prebentzioan aditua.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Pentsamendu autonomoa eta sortzailea komunikazio enpatikoan

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Ume eta gazteek, beraien pentsamendu autonomoa eta sortzailea modu esanguratsuan eraiki ahal izateko espazioak sortu eta eskaini behar dira. Talde elkarrizketa eta komunikazio enpatikoaren metodologiaren bidez. Orainean eta etorkizunean modu arduratsuan sentitzen, pentsatzen eta elkarlanean erabakiak hartzen duten pertsonak eta herritarrak izateko.

## Norentzat

Haur eta gazteekin lan egiten dutenentzat eta elkarrizketaren izaera holistikoan interesa dutenentzat.

## Helburuak

1. Taldean besteekin pentsatzeko, komunikatzeko, ikertzeko eta sentitzeko aukerak ematea, espazio eta kontestu gokiak sortuz.
2. Ume eta gazteen pentsamendu dimentsio anizdunaren garapena ulertzeko giltzarriak eskaintzea, tresna praktikoak, gogoetatsuak eta sortzaileak erabiliz.

## Edukia

- Zer da elkarrizketa?
- Nola sortu elkarrizketarako Testuinguru gokiak? Ze baliabide daude?
- Bakarrik edo besteekin pentsatzen dugu hobeto?
- Nola sentitzen gara besteen ikuspuntu ezberdinen aurrean?
- Zer esan nahi du “entzuteak”?
- Zer da galderaren pedagogia?
- Ze komunikazio eta elkarrekintza mota sortu nahi dugu gizakion artean? Eta gure ingurune hurbilean?
- Zer dira pentsamendu trebetasunak?

## Metodologia

1. Metodologia parte-hartzaile eta dinamikoa: jarduera praktikoak, ludikoak eta sortzaileak.
2. Elkarrizketa eta gogoeta komunitatea.
3. Fundamentazio teorikoa.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

\* Miren CAMISON GOIENETXEA. Haur Filosofiako irakaslea.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Nola saihestu eta kudeatu eguneroko gatazkak

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Heldu eta hurren eguneroko erlazioan sortzen diren gatazkak gutxitzeko eta harremanak ez okertzeko. Loia, elikadura, eskolara ez joan nahi, amangandik ezin banandu, telebista, 100.000 aldiz esan behar kasu egiteko...

- Zer egiten dugu gatazka egon dadin?

- Jokaera desegokiaren aurrean zer? Haurrak nola ikasiko du? Zer daukagu ikasteko eta aldatzeko?

- Nola jarri mugak mehatxu, zigor eta xantaiarik gabe?

- Nola jaso haurraren amorrua? Haurraren osasun emozionala zaintzen.

- Gurasoen eta hezitzaileen amorrua. Gure ezintasuna eta amorrua benetako indar eta potentzia bilaka dadin erabil dezakegu.

- Beldur naiz haurraren eskaerei eta erreguei erantzunaz, gehiegi babestuko ote dudan. Nola lagundu bere autonomian?

\* Nerea MENDIZABAL. Psikopedagogoia.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# KAMISHIBAI tailerra:

## ipuinak ikasleek ere egin ditzaten

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Ipuinak eguneroko jardunean daude irakaskuntzan eta helburu askotarako erabitzen ohi dira. Ikastaro honetan, ipuinak erabiltzeko kamishibai izeneko teknika berezi bat ikasiko dugu. Kamishibaia butai izeneko antzetzoki txiki batekin kontatzen da, eta butaia egin, kamishibaiak sortu eta kontatzeko teknikak ikusiko dira ikastaro honetan.

### Norentzat

Bere lan jardueran ipuinak erabiltzen dituztenentzat: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasle, hezitzaileak, begiraleak, etb. Baita ipuinak maite eta teknika horietan trebatu ibili nahi duen ororentzat ere.

### Helburuak

*Aipatu teknika ikastea.*

Butaia egin, kamishibaiak sortu eta erabiltzen ikasiko dugu. Japoniatik ekarritako teknikaren bidez, ipuinak antzetzoki txiki batekin kontatzen dira. Irakaslearentzat kamishibaia zeharkako bitarteko interesgarria da, eta ikasleentzat sortzaile izateko aukera izan daiteke; adinaren eta nahiaren arabera: ipuin bat nola sortu, edo sortutakoa aukeratu; ipuinaren egitura; ahozkotasuna ipuina kontatuz landu; antzetzokia eta marrazkiak eginez eskulana egin; etb.

### Egitaraua

- **Sarrera eta kamishibaien aurkezpena.** Ahozkotasunaren tradizioa eta garrantzia: ipuinak eta kamishibaiak. Kamishibaien jatorria eta ezaugarriak.

- **Butaia egin.** (butai = antzetzoki) Nola egin edo nola ikasleek egin erraz eta merke antzetzoki bat. Ikastaroan butai bat egingo dugu.

- **Laminak prestatu.** Testua prestatzeko proposamenak. Ikasleek kamishibaiak sortzeko oinarritzko ezaugarriak. Irudien garrantzia eta eskulanetarako aholkuak. Nola antolatuta ipuina kamishibaian erabiltzeko. Kamishibaia erabiltzeko teknikak. Ikastaroan kamishibai bat egingo dugu.

- **Kamishibaia kontatu.** Kontatzeko oinarritzko tekniken aipatu eta kamishibai teknika berezi hori jorratu. Ikastaroan egindako butaiarekin sortutako kamishibaia kontatuko dugu.

### Metodologia

Praktikan oinarritutako lan-metodologia proposatuko da. Ikastaro honetan, butaia egin, kamishibaia prestatu eta hura kontatzeko teknikak ikasi eta praktikatu dugu.

\* Ixabel MILLET. Kontalaria eta idazlea.

\* *KOPURU MUGATUA* \*



# Neure burua maitatzen

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Neure burua maitatzea ez da harrokeria, ez da gezurrak pentsatzea, ez da modan dagoen auto-laguntza teknika bat.

Neure burua maitatzea oinarrizko beharra da.

Beste modu batean ikusteko, galderatxo bat egin dezakegu: nola sentitzen da gizaki bat normalean?

Hor dago kokka.

Sentimendu hori (segurtasuna, etsipena, beldurra, gozamena,...) ikasitakoa da. Eta hemen irakasleok badugu zer egiterik.

Gure prozesu emozionalak, hein handi batean, eraiki egin ditugu, askotan era inkontzientean.

Eta denok dakigunez, ikasitakoa badugu ber-ikastea.

Ikastaroa ez da izango nolabaitekkoa, atzera-joateko-bidaia izango, ez.

Etorkizunari begirada ausarta eta positiboa izango da.

Baina gure oinarrizko emozioak aldatzeko, hainbat kontzeptu eta prozesu erabili behar ditugu.

Baina beti bezala, ikastaroa praktikoa izango da, eta umorean oinarrituta egongo da.

Bai, hobe da giroa sendoa eta parregarria izatea, negargarria baino. Parra tresna paregabea da.

Eta landuko duguna ez da soilik gure buruan erabiltzeko izango, ez. Gure lanean eta etxean erabili dezakegu ikasitakoa. Eta, batez ere, geure gizartean.

Laburki esango dugu: ikastaro honetan, aldaketa emozionala egiteko tresna praktikoak eskuratuko ditugu.

Zer egin tresna horiekin?: ZUEN ESKUETAN DAGO.

\* Ibon DE LA CRUZ. Psikologoa.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Eskola emozionala

## Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.

9:00-14:00

Gizakiari bere potentzial indibidual eta bakarra sendotzen irakasten zaio, konpentsazioak askatuz, eraldatuz eta integrazio fisiko-energetikoak, mental-emozionalak eta espiritualak aurkituz. Hori eman ahal izateko kinesiologiako test muskularra eta hainbat teknika irakasten dira.

Ikastaroa, emozio mugatzailerak, errealitate baikor eta sortzaile batean bihurtu nahi dituen gizakiari zuzendua dago.

### Uztailaren 1ean

- Bizitzaren zentzua.
- Eremu energetikoen funtzionamendua.
- Garunaren funtzionamendua eta argi eremuak.
- Gida emozionalaren aurkezpena. Osho-ren kartak.
- Kinesiologiako test muskularraren aurkezpena eta erabilera.
- Zentratuta egoteko baliabideak.

### Uztailaren 2an

- Transformazioaren boterea.
- Kontzientzia, gertatzen ari zaigunaz.
- Dugun ahalmena eta ardura hau gainditzeko.
- Estresa disolbatzeko teknikak: posizio okularrak, irudi baikorrak...
- Aukera berriaren boterea.
- Mundu errealean integrazioa.

### Uztailaren 4an

- Prozesu osoaren praktika.

### Izaera

Teoria eta praktika ugariz baliatzen gara. Lan pertsonal honetan erabiliko duzun materiala Aukeran Zentruak sortua da, YAEL-en eskutik.

\* Oihana MEABE ARRILLAGA. Pedagogian Lizentziatua, Kinesiologiako Instruktoorea eta terapeuta.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Entrenamendu Mentalaz eta Ametsak aztertuz, zoriontsu!

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Produkzioa gero eta gehiago baloratzen den gizarte honetan, gizakion benetako osotasunaren prestakuntzandauzkagun hutsuneak nabarmetzen dira: konfiantza falta, beldurrak, muga estuak, noraeza, pertzepzio ez zuzenak, gure buruarekiko eta inguruarekiko sinesmen ez zuzenak, etab.

Entrenamendu Mentaletik eta ametsak ematen diguten informazioarekin barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, helburuak argitu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratu du, bizitza kalitatea ikaragarri hobetuz eta ingurukoei hobetzen lagunduz. Ah! eta bizipozez gainezka, gehiago eta hobeto produzituz.

## Norentzat

Pertsonaren garapenari zuzendutako ikastaroa izanik, irakasle, guraso zein bestelako profesionalek parte hartu dezakete.

## Helburuak

- Psikologia Positiboa, PNL, Sofrologia, Kontrol Mentala, Ho' oponopono, Berez dena maitatu, Erabateko Barkamena, Mindfulness eta beste hainbat barru lanketa tresnen eraginkortasuna bizi.
- Ametsak ulertu eta lantzen ikasi (Gestalt, Gayne Delaney, etab).
- Gueuz zein egunez, norbere baliabideen ezagutza hobetu, zoriontsuak izateko erabili eta emozionalki garatzeko tresnak landu.

## Edukiak

- Meditatzeko egoera nola lortu.
- Indarberritzeko ariketa (edozein egoeratan gure burua indartzeko).
- Norbere baliabideen ezagutza errazteko tresnak.
- Norbere helburuak lortzea errazteko tresnak.
- Norbere buruan sinistu eta konfiantza lantzeko tresnak.
- Jendaurrean gustura moldatzeko tresnak (kontzertuak, hitzaldiak, bilerak, azterketak, proiektu aurkezpenak, oposizioak, etab.)
- Maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnak.
- Egunerokotasunean gertatzen diren gatazkak baretu eta konpontzeko tresnak.
- Errendimendu intelektuala hobetzeko tresnak (memoria, kontzentrazioa, etab.).
- Errendimendu fisikoa hobetzeko tresnak.
- Ametsak guretzako daukaten informazio zuzena bizi eta ulertzeko tresnak.
- Bizitza hobetzen laguntzeko ametsen aukera.

## Metodologia

Ariketak eta kontzeptuak praktikatu eta barneratu ondoren, sortzen diren galderak erantzungo dira. Zenbaitzutan ariketa, praktikatu ondoren azalduko da. Beste batzuetan azaldu ondoren praktikatu da. Ikastaroa erabat partehartzailea da. Ikastaroaren helburu nagusia, eskainitako informazioaren onura, praktikak ekarriko digula ohartzea da.

\* Urko AROZENA. Musikeneko irakaslea. Psikologia Positiboan, Kontrol Mentalan aditua.

# Bideoa: editatzen ikasi, Pinnacle Studio programaren bidez

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Ikastaroan Pinnacle Studio bideo-programa ezagutzeaz gain, kamera batekin grabazio egokia nola egin ikasiko dugu. Hau da, planoaren morfologia ikusiko dugu (plano orokorra, plano amerikarra, plano erdia..., kameraren mugimenduak, fisikoak eta bere ardatzetakoak...), nola grabatu eta grabazioa nola antolatu editatzerakoan. Edizioan lagunduko gaituzten eta azken emaitza hobetuko duten atal garrantzitsuak dira.

Studio programa oso erraza da ulertzeko eta erabiltzeko, eta ideala da proiektuak eraikitzeko bidez zein DVDz. Programa horrekin lan egiteak zera esan nahi du: lehenik bideoak, argazkiak, audioa, animazioak eta abar lortu beharko ditugula, gero bigarren fase batera pasa eta pixkanaka elementu horiei guztiei edizioaren bidez forma emateko. Horietako elementu batzuei ukitu berezia eman beharko diegu (formatua aldatuz, filtroak erabiliz, apainketak eta abar eginez). Azkenik, elementu guztiak nahasi ditugunean, nahi dugun formatura aterako ditugu, izan zinta batera, DVDra edota aurkezpen multimedia batean txertatzeko artxibo batera.

## Edukiak:

### Proiektuak sortzea

1. Proiektu berri bat sortu.
2. Osagaiak.
3. Antolamendua.
4. Gordetzea.

### Bideoaren kaptura

1. Kaptura txartelak.
2. Konpresioa, hardware eta software bidez.
3. Kapturatzeako iturria aukeratzea.
4. Kapturatutako bideoa gordetzea.

### Bideo-kanalak

1. Bideoaren stream-a kanaletan sartzea.
2. Irudi finkoak sartzea.

### Bideoaren edizioa eta muntaia

1. Edizio erreminten erabilera.
2. Zatitzea.

3. Trantsizioak.
4. Lausotzeak.

### Bideo-filtroak aplikatzea

### Soinu-kanalak

### Gordetzeko aukeraketa

1. Plano motak aukeratu.
2. Horien gordeketa egin.

### Tituluak sortzea

1. Titularrak sortu.
2. Titularren ezaugarriak.

### Proiektuak esportatzea

1. Bideoaren formatua hautatzea.
2. Fitxategira, kanpoko gailu batera edo DVDra esportatzea.

\* **Pelaio EIZAGIRRE DE GARATE.** Telebista-errealizazioa ikasgaiko irakaslea, Escivi, Zine eta Bideo Eskolan.

\* **KOPURU MUGATUA** \*

# Gorputz hizkuntza: oinarrizko solasaldiak

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Ikastaro honek hezkuntza testuinguruetan gorputz hizkuntzaren erabilera aztertzea eta arreta gune bilakatzea izango du helburu. Ikastaroa hezkuntzan diharduten profesionali zuzendua da eta proposamena zabala da, erantzukizunez, autonomiaz eta, norberarekiko errespetu eta zaintzaz, esperientzia egin eta ezagutza nork bere lan testuingurura transferitzeko ariketa burutu ahal izateko. Praktikoia eta eztabaidatua, edukien egokitzea eta inklusiorako begirada izango ditu oinarri.

## Helburuak

- Nork bere gorputz hizkuntzaz solastu eta jolastu.
- Gorputz hizkuntza esperientziak aztertu hezkuntza harremanetan.
  - o Ikastetxeko irakasle-ikasle harremanetan.
  - o Ikastetxez kanpoko proiektuen eta ikastetxeko irakasle-ikasle arteko harremanetan.
- Gorputz hizkuntza eta hezkuntza proiektu integral eta globalak ezagutu.
  - o Learn Physical

\* **Eneko BALERDI.** Dantza garaikideko ikasketak eta Eszena zuzendaritza ikasketak burutu ondoren Hezkuntzaren Psikologia ikertu eta ikasteari ekin zion. Koreografia eta dantza lanetan aritzen da, baina hezkuntzara bideratua du denbora eta arreta gehien, gaur egun. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean irakaslea da eta dantzari lanetan dihardu.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Kutxa baten balioa

## Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.

9:00-14:00

-Ez dakit zertarako gastatu dudan hainbeste diru jostailu horretan! Begirada arin bat bota eta bere-hala KUTXAREKIN hasi da jolasten!

Kartoizkoak zein plastikozkoak, gailetenak zein gaztatxoak, karratuak zein borobilak... kutxez inguratuta bizi gara eta danok dakigu umeei oso erakargarriak egiten zaizkiela.

Etxeko zaborrontzia errez betetzen zaigu, baina proposamen bat egingo dizuet arazo hau konpon-tzeko:

**KUTXA** hauek **BIRZIKLATU** egingo ditugu eta **BIZITZA BERRIA** emango diegu!

### Norentzat

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko irakasleentzat bereziki. Baita ere, adin horretako umeekin ari diren begiraleentzat zein gurasoentzat.

### Helburuak

-Birziklatzearen garrantziaz ohartu.

-Baliabide berriak ezagutu.

-Materialek ematen dizkiguten aukera desberdinak ezagutarazi.

-Irudimena eta sormena landu.

### Metodologia

Ikastaroa guztiz **dinamikoa** eta **praktikoa** izango da, **tailer** bat.

Kutxak oinarritzat hartuta eta beste materiala batzuk erabiliz (tutuluak, yogur ontziak, tapoiak...) zaharretik berriak sortuko ditugu.

Proposatutako **ereduak** desberdinak izango dira: jostailuak, apaingarriak, txotxongiloak...baina beti gure neska mutilek aurrera eramateko **egokiak**. Gu haien **laguntzaileak** baino ez gara izango.

\* Alazne UGARTETXEA. Haur Hezkuntzako irakaslea eta umeentzako tailerretan aditua.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Espresio tailerra

## “Sortuz sentitu - Sentituz sortu”

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Sortze-prozesua oinarritzat hartuta, emozioekin egingo da lan. Tailer praktikoa izango da. Pintura, zeramika, eskultura, gorputz espresioa, erlaxazioa... hainbat elementu uztartuko dira emozioak azaleratu eta bideratzen ikasteko.

Sortzea, artea, sendabide bat dela zioen Joseph Beuys artistak. Bere aburuz edonor izan daiteke artista. Sortze prozesuan norbere barrenak hustu eta hein batez emozio edo bizipen horietatik askatzen baikara.



Jung-ek zioen moduan gizakiak sozializatzeko prozesuan sozialki "zuzenak" edo "egokiak" ez diren norbere ezaugarri eta emozioak baztertzen ditu, inkontzientean gorde, pilatu. Egunerokoan ordea Jung-ek "itzala" zeritzon horrek nahi gabe baldintzatu eta mugatu gaitzake. Emozio eta korapilo horiek azaleratzeak gertatzen zaigun horren kontziente egin gaitu; modu horretan gure jokamoldearen zergatia azaleratu eta egoera horretan esku har dezakegu. Tailer honen helburua sormenaren laguntzaz parte hartzaileen emozio eta jokaeren kontzientzia hartzea eta norbere potentziala berreskuratzea da.

Ikastaro honetan pertsonalki sentitu, sumatu eta bizi izandakoa lanabes bilakatuko da haurrekin lan egiterakoan. Enpatiaz lan eginaz haurren emozioak, beharrak eta kezak sortzearen bidez askatu eta bideratu ditzakegu. Hitzez espresatu ezin duten hori konturatu gabe irudikatu eta azaleratzen baita sortze-lan orotan.

\***Jasone IRIGOIEN LOINAZ.** Sortzailea (pintura, eskultura, performance). Arte Ederretan lizentziatua. Ikasketa aurreratuetan diplomatua Irudia, Teknologia eta Kulturaren alorrean. Terapia alternatiboetan titulatu (Reiki III, Kristaloterapia, Sanazio pranikoa). Pinturako Irakaslea. Espresio tailerren gidaria (haur eta helduak).

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# ORTOGRAFIAREN gakoak

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Edozein hizkuntzetan ortografikoki zuzen idaztea, ez da lan makala, ez. Gurean ere, Lehen Hezkuntzan dauden irakasleek jarduera horren garrantziarekin ohartuta, era batean edo bestean, euren ikasleekin lantzen dute bai euskal bai erdal ortografia, gai horren inguruan dauden ikerketak eta datu enpirikoak kontuan hartu gabe. Tamalez, euskal hizkuntzaren inguruan oso ikerketa gutxi dago, edo ezer, eta euskarak dituen berezitasunen arabera ongi irakasteko, beste hizkuntzetan dagoen ikerketa erabiltzea besterik ez dago.

## Norentzat

Lehen Hezkuntzako irakasleentzat.

## Helburuak

Bi helburu nagusi ditu: alde batetik, beste hizkuntzatan ortografiaren inguruan egin den ikerketa plazaratzea, eta, hein batean, euskarara ekartzea; eta bestetik, irakasleek egunero-koan ortografia nola irakasten duten aztertzea, eta ahal dela, hobetzea.

## Metodologia

Helburuak lortzeko, lehendabizi, idazketaren izaera psikolinguistikotik abiatuta, ortografiaren nondik norakoak aztertuko dira, bai hizkuntza bai hitzen ezaugarrien arabera dauden zailtasunak azalerazten. Eta ondoren, oinarri zientifikoa duten ortografia irakasteko metodo desberdinak aztertu eta praktikan jarriko dira, zuzen idaztea, landu daitekeen gaitasuna baita. Eduki hauek direla eta, kurtsorearen **izaera nahiko teorikoa** izango da eta erabiliko den hizkuntza euskara izango bada ere, erabiliko den hainbat material eta adibide erderazkoak izango dira.

\* Zuriñe GAINZA JAUREGI. UPV/EHUko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Sailaren irakasle doktorea.

\* *KOPURU MUGATUA* \*



# ALFABETOMOTRIZITATEA

## Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian. 9:00-14:00

Modan ditugu koloretako gomazko eskumuturrekoak. Pintza edo sardexka pare batez baliaturik hor ditugu nonnahi adin eta adimen guztietako gure ikasleak burubelarri. Demagun ikastaro honek izenburuztat duen ALFABETOMOTRIZITATEA hitza horietako eskumuturreko bat dela, hots, jolas edo aktibitate berean grafomotrizitatea, dramatizapena, musika eta psikomotrizitatea batera txirikordatzen ditugula. Hau ekonomia didaktikoa! 4D betaurrekodunak bagina bezala, gai izango gara gure ikasgelan lau arlo hauen azpi-prozesuak jarduera berebean ikusteko. Hauexek, besteak beste, hiru goiz horietan didaktikoki txirikordatuko ditugun gomak:

### GRAFOGOMA URDINAK

#### *Idazketarako eskuaren trebakuntza lantzen dute*

- Sorbalda, ukondoa eta eskumuturra askatzeko arrastaketak, katetira, pultsu lehiak, pilates baloiak, perkusioak eta masajeak.

- Eskumuturra malgutzeko yogi-katuen asanak, kre-mailera eta torlojuak, goma/soka/egunkari bihurrituen dantzak, estanpadurak, arrabolak eta brotxak.

- Hatzak banatzeko digitoaerobic eta txotxongiloak, hatz-twister eta minikotxeak, ping-pong pilotak, makil txinatarrak eta kanikak.

- Hatz-mamiak bizkortzeko jausgailua: zeta, eztainu, zakua, burbuila, lixapaperak eta buztina.

- Grafismoen diskoteka birakariak.

### DRAMAGOMA BERDEAK

#### *Ahozko hizkuntzarako gorputz eta ahotsaren adierazpena lantzen dute*

- Ahoskera eta doinuera lantzeko komiki bizidunak

- Pertsonaiak karakterizatzen edabe bilakatzailea, kale-mimoak eta jarrenen fotokopiaitsuak.

- Entzumen antzeztuak eta kolpatuak.

- Frutadendetako eskularru gardenaz arnasa lanetan.
- Narrazioa garatzeko bat bateko antzerki sketch, kartetan, diktaketa pantomimikoak.
- Hitzontziak bihurtzeko dinamikak: zaletasunen inkesta, maiteminketa hautagarriak, zirikatzaileak, topaketa hunkigarriak.

### MUSIKAGOMA MOREAK

#### *Erritmo horizontala eta tonu-harmonia bertikala orkestratzen dute*

- Agur erritmikoak: O.T., kaixo-suite eta mekanismoak.

- Figura metrikoak menperatzeko atrilak lau haizetara, zaldiko maldiko eta festatalde polirritmikoak.

- Erritmo neurriak eta tinbreak bat-batean sortu eta mekano eran partitura osatu.

- Jaitsierak polirritmikoak eskileretan, ostinato ibiliak metronomopean.

- Kazoo eta boomwhackers abesbatzak.

- Darbouka perkusiojolasean.

### KINESIGOMA LARANJAK

#### *Gorputzaren ongizate toniko-vestibularra, zentzumotorea eta irudikatua dute helburutzat*

- Gorputz-jarrerak eta ekintzak somatogramaz gidatuak.

- Dantza librea pistoidun xirula, krotalo, gong eta oinez jotzen den lur-piano erraldoiarekin.

- Elkarriketa tonikoa eskuz eta bizkarrez.

- Gorputz-kulunkak taldearen magalean.

- Gorputz-eskema eta gorputz-irudia grafiti teknikaz.

#### *Oharra: arropa zein oinetako eroak eramatea gomendatzen da.*

*\* KOPURU MUGATUA \**

\* Aitor ZENARRUZABEITIA. Musika irakaslea. Logopeda, musikaterapeuta, psikomotrizista eta psikopedagogoa.

# Tertulia dialogikoen bitartez, adimen emozionalean sakondu

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Adimen emozionalaren oinarriak zehazten dituzten hainbat testutatik abiatuta, haiek irakurri, paragrafo edo esaldi bat aukeratu eta norberaren bizipenetan oinarrituz, beste tertuliakide guztiekin partekatu eta horiek esan beharrekoa entzunez ere asko ikasi daiteke.

Ez da ezer ondo edo gaizki egongo, ez da ezer hobea edo txarragoa izango. Bakoitzak bere ikuspuntua izango du eta hura adierazteko eskubidea izango du. Nola ez, argi izan beharko dugu, beste parte hartzaile guztiak errespetatu beharko direla. Horrelako tertulia motak gai literarioekin egin izan dira. Tertulietarako gai nagusi moduan adimen emozionala hartuz, horren oinarriak zehaztu eta norbere esperientzietatik abiatuz, asko ikasi daiteke.

## Norentzat

Interesa duen edonorentzat.

## Landuko diren GAIAK:

- Kontzientzia emozionala.
- Erregulazio emozionala.
- Autonomia emozionala.
- Gaitasun sozialak.
- Bizitza eta ongizaterako gaitasunak.

## Metodologia

Tertulia dialogikoak.

## Izaera

Izaera praktikoa, bai tertulietako parte-hartzea, baita proposatuko diren ariketetan ere. Teoria, aurretik irakurri beharreko testuetan egongo da.

\* Eñaut SOLAGUREN MAGUREGI. Gorputz eta Haur Hezkuntzako profesionala.  
Adimen emozionalean aditua.

*\* KOPURU MUGATUA \**

# Yoga eta Kontzentrazio Teknikak eskolan

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

## Zoriontsu izaten ikasteko tresnak

Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispersioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desegokiak eta abar presente baitaude.

Guzti horrek irakasleen osasunean eragin dezake, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotuz (urduritasuna, lo egieko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, etab).

Yogako hainbat teknikak eragin horiek arindu eta bideratzen dituzte. Teknika horiek ikasleekin erabiltzeko aukeraturata daudenez, beraien kontzentrazioa handitu egiten da, lasaitasuna ezarri, adimenaren gaitasunak bizkortu, portaera hobetu eta ikasketarekiko jarrera baikortu egiten da.

## Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu, adimena lasaitu eta kontzentratzen ikasi.
- Arnasketak, nerbio sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenaz jardun eta teknika horiek behar diren momentuetan erabiltzen ikasi.
- Adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak ikasi, horiek ikasleekin landu ahal izateko.
- Erlaxazio sakonaren bitartez, fisikoki eta psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ikasi.
- Horren guztiaren ezagutzaz eta praktikaz, zoriontsuago izaten ikasi.

## Edukiak

- Osasuna indartzeko bost puntuak.
- Zoriontasuna eta egoera horretara iristeko baliabideak.
- Arnasketa prozesua eta bere eragina emozioetan.
- Emozioak askatzeko teknikak. EFT.
- Kontzentrazio ariketak.
- Bisualizazio teknikak.
- Erlaxazio sakona.
- Sintesia: ikasleekin egiteko erlaxazio, atentzio eta bisualizazio ariketak.

## Metodologia

Yogak izaera esperimentalak daukanez, tailerra hainbat teknika erabilgarriren esperientzian oinarrituta dago.

\*Marina PINTOS MARTIKORENA. Pianojole, musika irakasle eta yoga irakaslea. Azken urteotan Hezkuntza Elkarteei egokitutako formakuntza tailerrak zuzentzen ditu.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Musikaren bizipena eta erabilera

## Haur Hezkuntzan

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Haur Hezkuntzako gelan nahitaezkoa da musikaren bizipena eta erabilera ikaslearen garapen osoa lortzeko, soinuak, isiluneak eta musika-lanak norberaren autonomia pertsonala, inguru-nearen ezaguera eta komunikatzeko tresna baliagarriak dira eta.

Haurraren entzumena, adierazpena eta sormena lantzeko egingo ditugun jarduera praktikoa, labur eta desberdinetan gorputza, abotsa eta tresnak erabiliko ditugu, giro musikal, ludiko eta afektibo batean.

Beraz, mugimendua eta dantzak, abotsa eta tresnak erabiliko ditugu egun horietan musikaz blai geratzeko, musika bizi eta egiteko!

### Norentzat

Haur hezkuntzako irakasleentzat eta hezitzaileentzat.

Soinua eta musika-lanak hezkuntza baliabidetzat erabili nahi dituen edonorentzat.

### Helburuak

- Haur Hezkuntzako gelan entzumena, adierazpena eta sormena lantzeko soinua eta musika-lanaren bidez tresnak ematea.
- Gorputza, ahotsa eta tresnak irakaskuntzako baliabide gisa erabiltzea.
- Hezitzaileei ikasleekin lantzeko gaietarako abiapuntuak ematea.

### Edukia

- Soinuaren ezaugarri batzuk: erritmoa, altuera, intentsitatea, tinbrea, forma. Isilunea.
- Mugimendua eta dantzak, erlaxazio ariketak, ahotsaren erabilera egokia (arnasa eta inpostazioa, abestiak), tresna desberdinak (kotidiafonoak, jostailu ozenak, "boomwhackers")
- Beste baliabide batzuk: gorputz-perkusioa, ipuin musikalak, musikogramak.

### Metodologia

Ikastaroa nagusiki **praktikoa** izango da.

Erabilitako teoria, praktikan aplikatutakoa kokatzeko baliogarria izango da.

Jarduerak laburrak izango dira, bakarkakoak zein taldekoak ere bai.

\* **Ana URRUTIA**. Goi-mailako musika irakaslea, doktorea eta EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako musika irakaslea.

\* **KOPURU MUGATUA** \*

# Zinea, elkarbizitzan hezteko erraminta

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Formazio ekintza hau Izan Proposamenaren barruan kokatzen da. Hezkuntza proposamen horrek honako erronkari erantzun nahi dio: nola hezi neure burua eta besteak pertsona izaten? Bere helburua baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzea da geure burua eta besteak pertsona izaten hezteko. Asmo horrekin, bere edukia zortzi ikaskuntzetan biltzen du eta pedagogia etiko bat eskaintzen du hobeto bizitzeko, elkarbizitzeko eta hezteko. Ikaskuntza bihurtzen diren zortzi esperimentzen bizipena pertsona gisa hazteko erabakigarria dela iradokitzen du.

## Norentzat

Irakasleentzat orokorrean, aholkularientzat, bizikidetzaren arduradunentzat eta gurasoentzat.

## Helburuak

- Bizikidetzarako hezkuntzan sakontzeko baliabideak eta irizpide didaktikoak eskaintzea.
- Zinean oinarrituriko material didaktikoa aztertu eta sortzeko irizpideak eskaintzea.

## Edukiak

- Zineak hezkuntza baliabide gisa duen balioari buruz hausnartzea.
- Bizikidetzaren kudeaketarako oinarritzko edukietara hurbiltze teorikoa. Ikastaroan Baketik-en Izan Proposameneko edukiak lantzen dira.
- Bizikidetzarako oinarritzko gaiek aparteko garrantzia duten hainbat pelikula aztertzea.
- Gaiari buruzko material didaktikoa sortzeko oinarriak finkatzea.

## Metodologia

Metodologiak honakoak konbinatzen ditu:

- Azalpen teorikoak.
- Material zinematografikoa ikustea eta aztertzea.
- Taldean egiteko araketak.
- Banakako lanak.

\***Maite ASEGINOLAZA BASTARRIKA.** Gaur egun Baketik-eko hezkuntza arloko koordinatzailea da. 2005etik irakasle izan da hainbat master eta graduondotan (Deustuko Unibertsitatean eta MU-Mondragon Unibertsitatean), Eusko Jaurlaritzako Prest Gara Programan eta abar.

# Espresso-tailerrak

## Literatura eta ipuinak

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

### Mugimendua bizi. Gorputz-autonomia jolas- eta epairik gabeko guneetan.

Gorputz-hezkuntzako hezitzailea izanik, jolasteko eta ez epaitzeko guneak sortu ditut, eta han lan egiten duten pertsonak, libertatean, interesaren, pozaren eta ikerketa pertsonalaren bidez ikasten dute. Modu horretan, eta bakoitzaren gaitasunen arabera, gehien behar dituzten mugimenduak eta jarduerak aukeratzeko dituzte. Ikastaroan jorratuko ditugu praktikara eramaten ditudan esperientziak:

- eskola arloan (Leizaran BHI-ren institutuan ematen ditudan klaseetan)
- nire ikerketa mugimendu-tailerrean espresioa lantzeko
- familia arloan, nire seme-alaben heziketan

Gune guzti horietan, ezaugarri edukatiboak egokiak direnean mugimendua plazerarekin bizitzeko, egunero berresten dut gizakiak duen gaitasuna.

### Norentzat

Gurasoentzat, irakaslentzat, psikologoentzat, eta hezkuntzan interesatuta dauden guztientzat.

### Landuko diren gaiak eta edukiak

**Gorputza autonomiarekin lantzeko ezaugarriak. Bai eskolan, bai eskolatik kanpo**

- Jolasteko eta ikertzeko aukera izan ikaskuntzak barneratzeko.
- Autonomia eta inizatiba landu. Emmi Piklerren ikerketa (Moverse en libertad)
- Epairik gabeko guneak sortu eskolaren barruan

**Mugimendu tailerra, gorputzarekin jolasteko aukera. Espresso-gunea**

- Arno Sternen ikerketa pintura arloan ([www.arnostern.com](http://www.arnostern.com))
- Mugimendu tailerra. Ezaugarri edukatiboak libertatean mugitzeko
- Espresso gorputzarekin. Energia mugimenduan. Naturaltasuna, bapatekotasuna, sorkuntza
- Materiala (ohialak, zapiak, ..., e.a.)
- Musika

### Metodologia

**Saio teorikoak:** hitzaldien eta argazki digitalen bidez eduki teorikoak emango dira

**Saio praktikoak:** mugimendu-tailerra praktikan jartzea gorputzarekin espresioa lantzeko

\*Benjamin BARANDALLA AZKUETA. Gorputz-heziketa irakaslea 1994tik. Gaur egun Leizaran BHI-an (Andoain) lanean. **Baleube** espresio-tailerren (pintura, buztina eta mugimendua) arduraduna 1995etik (Donostia).

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Hezkuntza proiektuak sortzen

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

Maila lokalean hezkuntza proiektu bat nola diseinatu, sortu eta garatu ikasiko dugu. Egun martxan dauden esperientziak eredu hartuta gure auzo zein herrietan hezkuntza proiektu bat egiteko gakoak eskuratuko ditugu.

Ikastaro honek izaera teoriko eta praktikoa izango du. Izan ere, teoriari dagokion atalean egun [Euskal Herriko txoko ezberdinetan garatzen ari diren hezkuntza proiektuak ezagutuko ditugu](#): Orioko eta Soraluzeko herri curriculumak, Dima eta Egia-ko hizkuntza proiektuak, Ondarroako hezkidetzak proiektuak, Larrabetzuko jantoki autokudeatua, kanpo espazioen antolaketa hezitzailea...

Guzti honetarako herri horietako kideak izango ditugu ikastaroan, euren zuzeneko esperientziarekin [tokian tokiko errealitateak ezagutu eta berriak sortzeko gakoak identifikatuko ditugu](#). Hezkuntza Plataformen Topagunearen filosofiari jarraiki, herriz herrikako esperientziak elkarrekin partekatuz apurka apurka Hezkuntza Sistema Propioaren eraikuntzan motor izango diren hezkuntza proiektuak ezagutuko ditugu.

**\*HEZKUNTZA PLATAFORMEN TOPAGUNEA.**

[hezkuntzaplataforma.topagunea@gmail.com](mailto:hezkuntzaplataforma.topagunea@gmail.com)

[www.hezkuntzaplataformatopagunea.blogspot.com.es](http://www.hezkuntzaplataformatopagunea.blogspot.com.es)

# Ilusioa mantenduz, motibatu!

## Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.

9:00-14:00

Urteak pasatzen dira, proiektu desberdin askotan murgilduta gaude, beti presaka gabiltzaren sententzioarekin, eta gainera jendeak ez duela parte hartzen esaten dugu behin eta berriro.

Gu saiatzen gara, ilusioa jartzen dugu, baina ez dugu lortzen gure kideak, gure ingurukoak, guk nahi bezala inplikatzeko.

Askotan desmotibatuak sentitzen gara, eta ez dakigu gure burua nola motibatu, ezta ingurukoena ere.

### Norentzat

Motibatzeko era eta ideia desberdinak ezagutu eta praktikara eramateko aukera izango dugu.

Bai gure buruarekiko, baita gure taldekide edo inguruarekiko aplikagarriak diren tresnak eramango dituzu.

Motibazioa, barne indarra da. Zerbait egin eta lortzeko gogoia.

Bizitzarako indarra, amets, proiektu eta helburuetarantz urratsak emateko gogoia.

Eta hau ikasi daiteke, bakoitzak bere burua ezagutuz eta modu iraunkorrean praktikatzu eta praktikatzu.

### Norentzat

Aldaketarako, eguneratzeko, bizirik sentitzeko gogoia eta ilusioa duen edonorentzat.

### Edukia

- Motibazioa.
- Proaktibitatea.
- Planifikazioa.
- Talde lana.
- Denboraren kudeaketa.
- Helburuekiko lanean.

### Metodologia

Partehartzailea izango da. Azalpen **teoriko** laburrak emango ditugu, eta jarraian beti **ariketa praktikoak**, zuen errealitatean oinarritutakoak, egiteko gonbidapena luzatuko dizuet.

### Motibatu eta parte hartu!

\*Nerea REDONDO OTAMENDI. Coach eta Formatzailea.

\* **KOPURU MUGATUA** \*



# Mindfulness-a (Arreta Osoa) eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**  
**9:00-14:00**

Gaur egun gure hezkuntza sisteman irakasleen estres mailak oso altua izaten jarraitzen du. Irakasleei gero eta eskari handiago eta anitzago egiten zaizkie, egoerak ere azkar aldatzen dira eta egokitzea eskatzen zaie. Horregatik irakasleek beren lan esparruko eguneroko erronkak kudeatzen lagunduko dieten tresnak behar dituzte. Oinarri zientifiko sendoa duen mindfulness-a gakoa izan daiteke laneko eta erkidegoaren ongizatea sustatzeko tresna gisa.

## Norentzat

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.

## Helburuak

- Arreta Osoan oinarrituriko teknikak ikasi eta praktikatzea.
- Arreta Osoaren esparruan psikologiak eta neurozientziak egindako aurrerapenak eskolarekin eta ikasgelako kudeaketarekin lotzea.
- Gure burua hobeto tratatzen ikastea, Arreta Osoko tresnen bidez.

## Edukia

- Mindfulness-a, irakasleen gogo-aldartearen autokudeaketarako.
- Mindfulness-a, ikasgela egoki kudeatzeko.
- Mindfulness-a, ikastetxeko pertsonen arteko harremanak egoki kudeatzeko.

## Metodologia

Metodologia **teoriko-praktikoa** izanen da. Mindfulness-a hezkuntzan ardatz izanen duen oinarri teorikoa eta ezarritako helburuak eta edukiak lortzen lagunduko duten praktikak uztartuko dira. Gainera, irakasleen estresari buruzko kasuak aztertuko dira eta azalduko da estres hori mindfulness-aren bidez nola kudeatu.

\* **David ALBEAR.** EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Departamentuko irakaslea eta ikerlaria da. 11 urte daramatza psikologiaren profesional gisa BARAKA Psikologia Integraleko Institutuan.

\* **Pello URKIDI.** Donostiako Irakasle Eskolako irakaslea da, Mindfulness metodoarekin egiten du lan.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Euskaraz aritzeko jolasak

**Uztailak 1, 2 eta 3. Donostian.**

**9:00-14:00**

“Haurrak jolasa berea du” dio esaera zaharrak, eta guk aldarrikatzen dugu bizitzak berak dituela bere, jolasa, alaitasuna, umorea eta adiskidetasuna.

Taldean abesteko eta jolasteko hainbat proposamen landuko ditugu jolas ikastaro praktikoan.

## Norentzat

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, aisialdian ari direnentzako eta jolastea atsegin duen edonorentzako.

## Helburua

Kalean euskaraz jolasteko tresnak ikastea.

## Edukia

- Imitazio-jolasak.
- Norberak egiteko jolasak.
- Taldean aritzeko jolasak.
- Animazio jolasak.
- Abesteko jolasak.
- Abestirik gabeko talde-jolasak.
- ...

## Metodologia

Metodologia **teoriko-praktikoa** izango da, batez ere praktikoa.

\* Gipuzkoako Urtxintxa Eskolako hezitzaileak.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

## Haur Hezkuntzako haurraren garapena ulertzea, psikomotrizitate praktikaren ikuspegitik

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUko Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

Haurraren garapena prozesua da. Ezin da ulertu argazki finko bat bezala. Haurra badoa aldatzen, heldutasun prozesua osatzen. Horrek esan nahi du hezitzailea joan behar dela egokitzen bere jarrerak, haurraren gaitasun berriak kontuan hartzen.

Eta prozesu guzti horretan, haurrak badu baliabide nagusia: bere gorputza/mugimendua eta ekintza/jolasa: psikomotrizitate praktika horretatik abiatu egiten da. Prozesu horretaz hitz egingo dugu. Beti errealitatetik gertu.

### Norentzat

Haur Hezkuntzako profesionalentzat. Eta haur txikiaren garapenez interesa dutenentzat.

### Landuko diren GAIAK

Ekintza, mugimendua eta jolasaren garrantzia haurraren identitatearen eraikitze prozesuan:

0-1: NAIZ

1-3: NI naiz

3-6: Ni naiz NESKA/MUTILA

Norberaren iraunkortasuna eta pertsonaren segurtasun oinarriak.

Bestearengandik banatu.

Bestekin aurkitu: NI/GU/BESTEAK. Sozializazioa.

Sentsazioetatik pentsamendura.

Hezitzailearen jarrerak.

### Metodologia

Aktiboa eta parte-hartzailea izango da. Eduki **teoriko eta praktikoak** izango ditu.

\* **Alvaro BEÑARAN ARANZABAL**. Psikomotrizista eta pedagogo. Bergarako UNEDeko “luzaro” psikomotrizitate eskolako irakaslea.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Koplagintzaren erabilera didaktikoa Haur Hezkuntzan

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUko Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

Alde batetik, errutinak erabiltzen dira gure eguneroko jardueretan Haur Hezkuntzako bigarren zikloan: “gaur nor da makinista?”, “zein egun da gaur?”, “nolako eguraldia daukagu?”, “zenbat neska-mutil daude gaur gelan?”, “nor dago gaixorik?”; edo, atsedendira joateko unea heldu denean, “ilaran jarrita: goazen patiora!”; edo, bazkaltzera joan aurretik, “eskuak garbitu behar dira”; edo, “etxera joateko unea heldu da”. Eguneroko ekintza guztietarako guk sortutako koplak izango ditugu langai. Horrez gain, gure ikasle baten urtebetetze eguna denean, betiko “zorianak zuri” delakoa baino zerbait jatorragoa, berezia prestatu ahal dugu. Oparirik politena guk sortutako kanta bat, zergatik ez?

Beste aldetik, ipuinak erabiltzen ditugu gure geletan; ipuinak kontatu, irakurri edo antzeztan ditugu, baina ia inoiz ez dugu kantatzen. Horregatik, ipuinetan kantu bidezko sekuentzializazio didaktikoa landuko dugu, ipuinei etekin handiagoa ateratzeko asmoz. Euskarari lagungarri gertatuko zaio, metodologia honen bidez haurrak esan behar dutena esateko gai izango direlako, gauzak esaten modu desberdinean trebatuko baititugu; kantuz, hain zuzen ere. Horretarako, irakasleak ez gara zertan bertsolariak izan, baina Haur Hezkuntzarako koplak prestatuko ditugu alde aurretik eta gelara goazenean abestu egingo dugu, geure gelako haurrekin konplizitatea bilatuz eta euren hizkuntza gaitasuna landuz.

## Norentzat

Gai honetan interesatuta dagoen edonorentzat, eta, bereziki, Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren 4 eta 5 urteko haurren geletan lanean dabiltzan tutoreentzat edo irakasleentzat, baita Irakasle Eskoletako ikasleentzat ere.

## Edukia

- Ahozkotasuna
- Bertsolaritza/ bertsogintza eta Koplaritza/koplagintza edukien desberdintasuna.
- Hizkuntza gaitasuna
- Aurrekariak

## Metodologia

Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako, 4 eta 5 urteko umeen geletan lantzeko kantu bidezko metodologia, eguneroko errutinetan eta ipuinen sekuentzializazio didaktikoetan bereziki txertaturik. Izan ere, Euskal Herrian gaur egun ezaguna den doinutegiak baliatuko gara.

\* **Txetxu PARDO.** UPV/EHUko hizkuntza eta literaturaren didaktika saila Bilboko Irakasle Eskolan.

# Eskola libre eta demokratikoak II.

## Eskola barneko bizitza

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUKo Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

Handia da azken urteetan antolatutako “eskola libre eta demokratikoak” ikastaroan jendeak erakutsi duen interesa, bai eta asko izan ere, horretan jorraturiko gaietan sakontzeko helburuarekin, aurrekoaren osagarri litzatekeen beste bat antolatzeko eskatu diguten ahotsak. Pedagogia osasuntsuago baterako bidean, heziketa konbentzionalan edo alternatiboan aritzeko gakoak zein eta nola-koro diren aztertzen entseatuko gara “Eskola libre eta demokratikoak II” ikastaroan. Benetako iraultza, haurren heziketa moldeen hankaz goratzeak baizik ez baitu ekarriko.

### Helburuak

- Eskola alternatiboetan erabilitako metodologia zehatzago ezagutu ahal izatea.
- Adin tarte bakoitzean arlo pedagogikoan kontuan izan beharreko gakoak. Zer eska dakiok haur bati adin batean edo bestean.
- Hezitzaile garen aldetik gure esku dagoen oro ezagutzea, gure interbentzioa ez dakion kaltegarri izan garatzen ari den haurrari.

### Edukiak

- Egungo eta hemengo heziketa eredia definitzen duten ezaugarriak definitu, zertarako diren eta zein balio duten gogoeta eginez. Eskolari kendu, ikaste prozesuan eragozten duen oro.
- Hezkuntza sisteman dauden haur-gaztetxoaren adin tarte bakoitzaren psikologia. Garapen etapa bakoitzean zer dagoen jokoan. Zer sustatu, zer ekidin. Zer eskatu, zer eman haur bakoitzari, bere garapen prozesuan.
- Hezitzailearen izatea. Bere egoteko modua. Ukan beharreko dohainak. Saihetsi beharreko jarre-rak. Lan pertsonalaren garrantzia. Formazioa.
- Egun eta hemengo eskola alternatiboaren ekintza pedagogikoa. Segitu dituzten eredu nagusiak.
- Wildtarrak. Pesta eskolaren eredia. Printzipioak.
- Summerhill. Askatasunak eta zorionak funtzionatzen dute. Barnetegiaren formatoa.
- Montessori eskolak.
- Beste erreferentzia batzuak: Stern...
- Askatasuna. Mugak. Arauak. Diziplina.
- Eskola bat sortu. Nola?...
- Euskal Herriko hainbat eskola alternatibotako kideekiko solasaldi-tailerrak.
- Eta sistema konbentzionalan? Sistema barneko esperientzia osasungarri zenbaitekiko solasaldi-tailerrak.

### Metodologia

Metodologia **teoriko-praktikoa** izango da. Hausnarketarako oso bideratua. Esperientzia praktikoaren kontakizunak eta gelan aplikatu ahal izateko proiektuen ezagutzeak eta praktikatzeko toki handia izango dute ikastaro honetan.

\* Ane ABLANEDO LARRION. Bigarren Hezkuntzako irakaslea. NUPeko irakasle asoziatua. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua.

# Heziketa dibertigarria zahartzaroan

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHuko Irakasle Eskolan.  
9:00-14:00**

Heziketa haurrekin. Heziketa nerabeekin. Heziketa berezia. Baina...heziketa zahartzaroan?.

Ba bai. Ez da kontzeptu berria. Toki askotan egiten da, eta irakasleontzat kontzeptu oso interesgarria da.

*Nork dio gure aiton-amonek ez dutela ezer ikasten?*

Ikasten dute, eta beraiekin lortzen diren emaitzak oso nabariak dira.

Kasu honetan, gure arazoa aurrekontzeptuak izatea da. Nolabait, lan hau aspergarria dela suposatzen dugu, eta ez da egia. Lan oso dibertigarria izan liteke, gure lanpostuan edo gure etxean eginda, gure aiton-amonekin.

Eta emaitzak oso desberdinak dira: normalean, heziketan ikaslea bizitzarako prestatzea nahi dugu.

Helburu hori mantenduko dugu, baina gainera, beste hainbat arlotan egingo dugu lan: medikoa, psikologikoa, soziala,...

Edo, aditzetan esateko: *babestu, sendatu, sendotu, prebentzioa egin, komunikatu, irakatsi, ikasi, erakutsi, zaindu, parra egin,...*

Ikastaro honen *ikuspegia praktikoa* izango da, beti bezala. Behar dugun oinarri teorikoa izango dugu, baina gure benetako *helburua* trebeziak eskuratzea izango da. Horrela, helburuen arabera, programak egiteko eta gauzatzeko ahalmena izango dugu. Ez da zaila, ez, eta gizartea zahartzen ari denez, komenigarria da beste lan egiteko aukerak eskuratzea.

Zer ikasiko dugu?. Ba, adibidez:

- Atentzioa sendotzea.
- Gogorapenak berreskuratzea.
- Itxaropena piztea.
- Bakardadea uxatzea.
- Umorea erabiltzea.
- Fisikoa sendotzea.
- Adimen soziala garatzea.
- Bizi-poza oparitzea,...

ERRONKA EDERRA, EZTA?.

\* Ibon DE LA CRUZ. Psikologoa.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Euskal mitologia eskoletan

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUKo Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

## **EUSKAL MITOLOGIAREN TRANSMISIO RAKO PROPOSAMENA:** **zergatik, ZER eta NOLA**

Maiz, ipuinak kontatzen ditugunean, euskal mitologiako pertsonaiak eta numenak aipatzen ditugu, sarritan oso ongi nor den eta haien arteko harremanak zeintzuk diren jakin gabe.

Hala ere, badakigu, eta horrela adierazten dugu gure eginkizunetan, euskal mitologia euskal kulturaren barnean, askotan gizartearen oinarrian, kokatzen dela, eta ezagutza horren transmisioa ezinbestekoa dela.

Ikastaro honen xedea, Mariren mundua ezagutzeko bidean ibiltzea da, gero hurrei transmititu ahal izateko. Alde batetik, euskal mitologiaren pertsonaiak, eta bestetik, haien arteko harremanak eta antolamendua ezagutzera emango dira ikastaroan.

Horretaz gain, euskal mitologiaren transmisioaren inguruan lanean aritzeko eta jarraitzeko, ekintza zehatzak proposatuko dira, euskal mitologia gainean zer eta nola azaltzeko proposamen konkretuak eskainiz.

### **Norentzat**

Bere lan-jarduera barnean euskal mitologiaren ezagutza transmititu nahi dutenentzat (irakasleak, hezitzaileak, begiraleak, etab.), baita euskal mitologia maite duen orentzat ere.

### **Helburuak**

- Euskal mitologia transmititzeko zergatia jorratzea.
- Euskal mitologiaren pertsonaia nagusiak eta haien arteko harremanak eta antolamendua ezagutzea.
- Transmisio-irakaskuntzarako proposamen zehatzak lantzea.

### **Metodologia**

Metodologia praktikan oinarritua bada ere, ezagutza teorikoak ikusiko ditugu era arin eta dinamikoan.

\* Ixabel MILLET. Kontalaria eta idazlea.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# 10 gai, 10 plastika proposamen

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHuko Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

- *Gabonak datoz! Zelan apainduko dugu gela?*
- *Zelan landu sentimenduak plastika txokoan?*
- *Gelako maskota egiteko, ideiarene bat?*

Horrelako galderak behin baino gehiagotan entzuten dira irakasle getetan. Berdin da proiektuka zein beste metodologiaren bat erabili, azkenean, guztion kezka antzekoak izaten dira. Goazen ba, kezka horiei erantzuna ematera!

## Norentzat

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko irakasleentzat bereziki. Baita ere, adin horretako umeekin ari diren begirale zein gurasoentzat.

## Helburuak

- Ondo pasatu eta sormena landu.
- Plastika teknika desberdinak ezagutu.
- Material berriak ezagutu.
- Plastika mundua beldur barik ikusi.
- Esperientziak elkarbanatu.

## Metodologia

Ikastaroa guztiz **dinamikoa** eta **praktikoa** izango da, **tailer** bat.

Ikasturtean lantzen diren **10 gai** (itsasoa, udaberria, eskola, sentimenduak...) abiapuntu gisa hartuko ditugu eta gure egunerokoan topatzen diren materialekin (platerak, kutxak, tutuluak...) **10 proposamen** desberdin aurkeztuko ditugu. Lan horiek hainbat motatakoak izango dira (jostailuak, apaingarriak, txotxongiloak...) eta **erraz egitekoak**.

Amaitzeko, buruak martxan jarriko ditugu eta egindakoari bizitza emango diogu abesti zein istorio-rioren bat antzetzten, hala, egindako lanaren balioaz ohartuko gara.

\* **Alazne UGARTETXEA.** Haur Hezkuntzako irakaslea eta umeentzako tailerretan aditua.

\* *KOPURU MUGATUA* \*



# Pedagogia Sistemikoa ikasgelan

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUKo Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

Pedagogia Sistemikoa hezkuntza errealitate zabala hartzen du bere baitan, eta hezitzailearen jarreran jartzen du arreta berezia. Pedagogia Sistemikoa ikaslearen errealitatea bere osotasunean hartzen du, dena delako abiapuntua onartuz. Honela, hezitzaileak ikasgelan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) “dagokion lekua hartzen duenean” aukera ezberdinak irekitzen zaizkio.

## Norentzat

Hezkuntza komunitatean diharduen profesionalentzat, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenarentzat, gurasoentzat eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona ororentzat.

## Landuko diren gaiak

- Pedagogia Sistemikoa: ikuspegi sistemikoa eta ordenaren txertaketa.
- “Zer da dagokidan lekuan egotea?”. Sistema guztiek berezko dituzten barneko hurrenkerak irizpideak.
- Sistema ezberdinak. Familia eta eskola. Familian kokatzearen garrantzia.
- Ikasle bakoitzaren oinarrizko beharrak.
- Hezitzaileak bere ikasleekin abiapuntua ezagutzeko baliabideak.
- Ikasleekin eta hezkuntza komunitatearen aniztasuna, jatorria eta testuingurua.
- Hezkuntzako profesional gisa, “Zein da nire errealitatea, zeintzuk dira nire funtzioak, ardurak eta nire mugak?”
- Elkarriketak familiekin, protokoloa.
- “Zer da autoritate izatea?” Autoritatea, sistemaren arduratik eta ikasleekin zaintza eta garapena ziurtatzetik.

## Metodologia

Gaitegia garatzeko azalpenak modu **teorikoan zein praktikoan**, dinamikak proposatuz egingo da. Praktika konkrituak banaka, talde txikitan eta talde osoan.

## Izaera

Teoriko eta praktikoa izango du.

\***Aitziber ESNAOLA ARRIBILLAGA**. Titulazioz Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua. Eguz Hezkuntza Proiektu “alternatibo” batean dihardu lanean.

\***Larraitx MENDIZABAL HUITZI**. Titulazioz Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakasle (EHU), Psicoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikoa, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua.

# Nola saihestu eta kudeatu eguneroko gatazkak

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHuko Irakasle Eskolan.**

**9:00-14:00**

Heldu eta haurren eguneroko erlazioan sortzen diren gatazkak gutxitzeko eta harremanak ez okertzeko. Loia, elikadura, eskolara ez joan nahi, amangandik ezin banandu, telebista, 100.000 aldiz esan behar kasu egiteko...

- Zer egiten dugu gatazka egon dadin?
- Jokaera desegokiaren aurrean zer? Haurrak nola ikasiko du? Zer daukagu ikasteko eta aldatzeko?
- Nola jarri mugak mehatxu, zigor eta xantaiarik gabe?
- Nola jaso haurren amorrua? Haurren osasun emozionala zaintzen.
- Gurasoen eta hezitzaileen amorrua. Gure ezintasuna eta amorrua benetako indar eta potentzia bilaka dadin erabil dezakegu.
- Beldur naiz haurren eskaerei eta erreguei erantzunaz, gehiegi babestuko ote dudan. Nola lagundu bere autonomian?

\* Nerea MENDIZABAL. Psikopedagogoia.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Entrenamendu Mentalaz eta Ametsak aztertuz, zorientsu!

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUKo Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

Produkzioa gero eta gehiago baloratzen den gizarte honetan, gizakion benetako osotasunaren prestakuntzandauzkagun hutsuneak nabarmentzen dira: konfiantza falta, beldurrak, muga estuak, noraeza, pertzepzio ez zuzenak, gure buruarekiko eta inguruarekiko sinesmen ez zuzenak, etab.

Entrenamendu Mentaletik eta ametsak ematen diguten informazioarekin barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, helburuak argitu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratu du, bizitza kalitatea ikaragarri hobetuz eta ingurukoei hobetzen lagunduz. Ah! eta bizipozez gainezka, gehiago eta hobeto produzituz.

## Norentzat

Pertsonaren garapenari zuzendutako ikastaroa izanik, irakasle, guraso zein bestelako profesionalak parte hartu dezakete.

## Helburuak

- Psikologia Positiboa, PNL, Sofrologia, Kontrol Mentala, Ho' oponopono, Berez dena maitatu, Erabateko Barkamena, Mindfulness eta beste hainbat barru lanketa tresnen eraginkortasuna bizi.
- Ametsak ulertu eta lantzen ikasi (Gestalt, Gayne Delaney, etab).
- Gaeuz zein egunez, norbere baliabideen ezagutza hobetu, zorientsuak izateko erabili eta emozionalki garatzeko tresnak landu.

## Edukiak

- Meditatzeko egoera nola lortu.
- Indarberritzeko ariketa (edozein egoeratan gure burua indartzeko).
- Norbere baliabideen ezagutza errazteko tresnak.
- Norbere helburuak lortzea errazteko tresnak.
- Norbere buruan sinistu eta konfiantza lantzeko tresnak.
- Jendaurrean gustura moldatzeko tresnak (kontzertuak, hitzaldiak, bilerak, azterketak, proiektu aurkezpenak, oposizioak, etab.)
- Maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnak.
- Egunerokotasunean gertatzen diren gatazkak baretu eta konpontzeko tresnak.
- Errendimendu intelektuala hobetzeko tresnak (memoria, kontzentrazioa, etab.).
- Errendimendu fisikoa hobetzeko tresnak.
- Ametsak guretzako daukaten informazio zuzena bizi eta ulertzeko tresnak.
- Bizitza hobetzen laguntzeko ametsen aukera.

## Metodologia

Ariketak eta kontzeptuak praktikatu eta barneratu ondoren, sortzen diren galderak erantzungo dira. Zenbaitzutan ariketa, praktikatu ondoren azalduko da. Beste batzuetan azaldu ondoren praktikatuko da. Ikastaroa erabat partehartzailea da. Ikastaroaren helburu nagusia, eskainitako informazioaren onura, praktikak ekarriko digula ohartzea da.

\* Urko AROZENA. Musikeneko irakaslea. Psikologia Positiboan, Kontrol Mentalan aditua.

# Gorputz hizkuntza: oinarrizko solasaldiak

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUKo Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

Ikastaro honek hezkuntza testuinguruetan gorputz hizkuntzaren erabilera aztertzea eta arreta gune bilakatzea izango du helburu. Ikastaroa hezkuntzan diharduten profesionali zuzendua da eta proposamena zabala da, erantzukizunez, autonomiaz eta, norberarekiko errespetu eta zaintzaz, esperientzia egin eta ezagutza nork bere lan testuingurura transferitzeko ariketa burutu ahal izateko. Praktikoak eta eztabaidatua, edukien egokitzea eta inklusiorako begirada izango ditu oinarri.

## Helburuak

- Nork bere gorputz hizkuntzaz solastu eta jolastu.
- Gorputz hizkuntza esperientziak aztertu hezkuntza harremanetan.
  - o Ikastetxeko irakasle-ikasle harremanetan.
  - o Ikastetxez kanpoko proiektuen eta ikastetxeko irakasle-ikasle arteko harremanetan.
- Gorputz hizkuntza eta hezkuntza proiektu integral eta globalak ezagutu.
  - o Learn Physical

\* **Eneko BALERDI.** Dantza garaikideko ikasketak eta Eszena zuzendaritza ikasketak burutu ondoren Hezkuntzaren Psikologia ikertu eta ikasteari ekin zion. Koreografia eta dantza lanetan aritzen da, baina hezkuntzara bideratua du denbora eta arreta gehien, gaur egun. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean irakaslea da eta dantzari lanetan dihardu.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Espresio tailerra

## “Sortuz sentitu - Sentituz sortu”

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHuko Irakasle Eskolan.  
9:00-14:00**

Sortze-prozesua oinarritzat hartuta, emozioekin egingo da lan. Tailer praktikoa izango da. Pintura, zeramika, eskultura, gorputz espresioa, erlaxazioa... hainbat elementu uztartuko dira emozioak azaleratu eta bideratzen ikasteko.

Sortzea, artea, sendabide bat dela zioen Joseph Beuys artistak. Bere aburuz edonor izan daiteke artista. Sortze prozesuan norbere barrenak hustu eta hein batez emozio edo bizipen horietatik askatzen baikara.



Jung-ek zioen moduan gizakiak sozializate prozesuan sozialki "zuzenak" edo "egokiak" ez diren norbere ezaugarri eta emozioak baztertzen ditu, inkontzientean gorde, pilatu. Egunerokoan ordea Jung-ek "itzala" zeritzon horrek nahi gabean baldintzatu eta mugatu gaitzake. Emozio eta korapilo horiek azalerrateak gertatzen zaigun horren kontziente egiten gaitu; modu horretan gure jokamoldearen zergatia azalerratu eta egoera horretan esku har dezakegu. Tailer honen helburua sormenaren laguntzaz parte hartzaileen emozio eta jokaeren kontzientzia hartzea eta norbere potentziala berreskuratzea da.

Ikastaro honetan pertsonalki sentitu, sumatu eta bizi izandakoa lanabes bilakatuko da hurrekin lan egiterakoan. Enpatiaz lan eginaz hurren emozioak, beharrak eta kezkek sortzearen bidez askatu eta bideratu ditzakegu. Hitzez espresatu ezin duten hori konturatu gabe irudikatu eta azalerraten baita sortze-lan orotan.

\***Jasone IRIGOIEN LOINAZ.** Sortzailea (pintura, eskultura, performance). Arte Ederretan lizentziatua. Ikasketa aurreratuetan diplomatua Irudia, Teknologia eta Kulturaren alorrean. Terapia alternatiboetan titulatu (Reiki III, Kristaloterapia, Sanazio pranikoa). Pinturako Irakaslea. Espresio tailerren gidaria (haur eta helduak).

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Yoga eta Kontzentrazio Teknikak eskolan

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUKo Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

## Zoriontsu izaten ikasteko tresnak

Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispersioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desegokiak eta abar presente baitaude.

Guzti horrek irakasleen osasunean eragin dezake, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotuz (urduritasuna, lo egieko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, etab).

Yogako hainbat teknikak eragin horiek arindu eta bideratzen dituzte. Teknika horiek ikasleekin erabiltzeko aukeraturta daudenez, beraien kontzentrazioa handitu egiten da, lasaitasuna ezarri, adimenaren gaitasunak bizkortu, portaera hobetu eta ikasketarekiko jarrera baikortu egiten da.

## Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu, adimena lasaitu eta kontzentratzen ikasi.
- Arnasketak, nerbio sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenaz jardun eta teknika horiek behar diren momentuetan erabiltzen ikasi.
- Adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak ikasi, horiek ikasleekin landu ahal izateko.
- Erlaxazio sakonaren bitartez, fisikoki eta psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ikasi.
- Horren guztiaren ezagutzaz eta praktikaz, zoriontsuago izaten ikasi.

## Edukiak

- Osasuna indartzeko bost puntuak.
- Zoriontasuna eta egoera horretara iristeko baliabideak.
- Arnasketa prozesua eta bere eragina emozioetan.
- Emozioak askatzeko teknikak. EFT.
- Kontzentrazio ariketak.
- Bisualizazio teknikak.
- Erlaxazio sakona.
- Sintesia: ikasleekin egiteko erlaxazio, atentzio eta bisualizazio ariketak.

## Metodologia

Yogak izaera esperimentalak daukanez, tailerra hainbat teknika erabilgarriren esperientzian oinarrituta dago.

\***Marina PINTOS MARTIKORENA.** Pianojole, musika irakasle eta yoga irakaslea. Azken urteotan Hezkuntza Elkarteei egokitutako formakuntza tailerrak zuzentzen ditu.

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# Tertulia dialogikoen bitartez, adimen emozionalean sakondu

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHuko Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

Adimen emozionalaren oinarriak zehazten dituzten hainbat testutatik abiatuta, haiek irakurri, paragrafo edo esaldi bat aukeratu eta norberaren bizipenetan oinarrituz, beste tertuliakide guztiekin partekatu eta horiek esan beharrekoa entzunez ere asko ikasi daiteke.

Ez da ezer ondo edo gaizki egongo, ez da ezer hobea edo txarragoa izango. Bakoitzak bere ikuspuntua izango du eta hura adierazteko eskubidea izango du. Nola ez, argi izan beharko dugu, beste parte hartzaile guztiak errespetatu beharko direla. Horrelako tertulia motak gai literarioekin egin izan dira. Tertulietarako gai nagusi moduan adimen emozionala hartuz, horren oinarriak zehaztu eta norbere esperientzietatik abiatuz, asko ikasi daiteke.

## Norentzat

Interesa duen edonorentzat.

## Landuko diren GAIAK:

- Kontzientzia emozionala.
- Erregulazio emozionala.
- Autonomia emozionala.
- Gaitasun sozialak.
- Bizitza eta ongizaterako gaitasunak.

## Metodologia

Tertulia dialogikoak.

## Izaera

Izaera praktikoa, bai tertulietako parte-hartzea, baita proposatuko diren ariketetan ere. Teoria, aurretik irakurri beharreko testuetan egongo da.

\* Eñaut SOLAGUREN MAGUREGI. Gorputz eta Haur Hezkuntzako profesionala.  
Adimen emozionalean aditua.

*\* KOPURU MUGATUA \**

# Zinea, elkarbizitzan hezteko erraminta

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUKo Irakasle Eskolan.  
9:00-14:00**

Formazio ekintza hau Izan Proposamenaren barruan kokatzen da. Hezkuntza proposamen horrek honako erronkari erantzun nahi dio: nola hezi neure burua eta besteak pertsona izaten? Bere helburua baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzea da geure burua eta besteak pertsona izaten hezteko. Asmo horrekin, bere edukia zortzi ikaskuntzetan biltzen du eta pedagogia etiko bat eskaintzen du hobeto bizitzeko, elkarbizitzeko eta hezteko. Ikaskuntza bihurtzen diren zortzi esperimentzen bizipena pertsona gisa hazteko erabakigarria dela iradokitzen du.

## Norentzat

Irakasleentzat orokorrean, aholkularientzat, bizikidetzaren arduradunentzat eta gurasoentzat.

## Helburuak

- Bizikidetzarako hezkuntzan sakontzeko baliabideak eta irizpide didaktikoak eskaintzea.
- Zinean oinarrituriko material didaktikoa aztertu eta sortzeko irizpideak eskaintzea.

## Edukiak

- Zineak hezkuntza baliabide gisa duen balioari buruz hausnartzea.
- Bizikidetzaren kudeaketarako oinarritzko edukietara hurbiltze teorikoa. Ikastaroan Baketik-en Izan Proposameneko edukiak lantzen dira.
- Bizikidetzarako oinarritzko gaiak aparteko garrantzia duten hainbat pelikula aztertzea.
- Gaiari buruzko material didaktikoa sortzeko oinarriak finkatzea.

## Metodologia

Metodologiak honakoak konbinatzen ditu:

- Azalpen teorikoak.
- Material zinematografikoa ikustea eta aztertzea.
- Taldean egiteko ariketak.
- Banakako lanak.

**\*Maite ASEGINOLAZA BASTARRIKA.** Gaur egun Baketik-eko hezkuntza arloko koordinatzailea da. 2005etik irakasle izan da hainbat master eta graduondotan (Deustuko Unibertsitatean eta MU-Mondragon Unibertsitatean), Eusko Jaurlaritzako Prest Gara Programan eta abar.



# Musikaren bizipena eta erabilera

## Haur Hezkuntzan

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHuko Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

Haur Hezkuntzako gelan nahitaezkoa da musikaren bizipena eta erabilera ikaslearen garapen osoa lortzeko, soinua, isiluneak eta musika-lanak norberaren autonomia pertsonala, inguru-nearen ezaguera eta komunikatzeko tresna baliagarriak dira eta.

Haurraren entzumena, adierazpena eta sormena lantzeko egingo ditugun jardura praktiko, labur eta desberdinetan gorputza, abotsa eta tresnak erabiliko ditugu, giro musikal, ludiko eta afektibo batean.

Beraz, mugimendua eta dantzak, abotsa eta tresnak erabiliko ditugu egun horietan musikaz blai geratzeko, musika bizi eta egiteko!

### Norentzat

Haur hezkuntzako irakasleentzat eta hezitzaileentzat.

Soinua eta musika-lanak hezkuntza baliabidetzat erabili nahi dituen edonorentzat.

### Helburuak

- Haur Hezkuntzako gelan entzumena, adierazpena eta sormena lantzeko soinua eta musika-lanaren bidez tresnak ematea.
- Gorputza, ahotsa eta tresnak irakaskuntzako baliabide gisa erabiltzea.
- Hezitzaileei ikasleekin lantzeko gaietarako abiapuntuak ematea.

### Edukia

- Soinuaren ezaugarri batzuk: erritmoa, altuera, intentsitatea, tinbrea, forma. Isilunea.
- Mugimendua eta dantzak, erlaxazio ariketak, ahotsaren erabilera egokia (arnasa eta inpostazioa, abestiak), tresna desberdinak (kotidiafonoak, jostailu ozenak, "boomwhackers")
- Beste baliabide batzuk: gorputz-perkusioa, ipuin musikalak, musikogramak.

### Metodologia

Ikastaroa nagusiki **praktikoa** izango da.

Erabilitako teoria, praktikan aplikatutakoa kokatzeko baliogarria izango da.

Jarduerak laburrak izango dira, bakarkakoak zein taldekoak ere bai.

\***Ana URRUTIA**. Goi-mailako musika irakaslea, doktorea eta EHuko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako musika irakaslea.

\* **KOPURU MUGATUA** \*

# Espresio-tailerrak

## Literatura eta ipuinak

**Uztailak 6, 7 eta 8. Leioan, EHUKo Irakasle Eskolan.**  
**9:00-14:00**

### Mugimendua bizi. Gorputz-autonomia jolas- eta epairik gabeko guneetan.

Gorputz-hezkuntzako hezitzailea izanik, jolasteko eta ez epaitzeko guneak sortu ditut, eta han lan egiten duten pertsonak, libertatean, interesaren, pozaren eta ikerketa pertsonalaren bidez ikasten dute. Modu horretan, eta bakoitzaren gaitasunen arabera, gehien behar dituzten mugimenduak eta jarduerak aukeratzen dituzte. Ikastaroan jorratuko ditugu praktikara eramaten ditudan esperientziak:

- eskola arloan (Leizaran BHI-ren institutuan ematen ditudan klaseetan)
- nire ikerketa mugimendu-tailerrean espresioa lantzeko
- familia arloan, nire seme-alaben heziketan

Gune guzti horietan, ezaugarri edukatiboak egokiak direnean mugimendua plazerarekin bizitzeko, egunero berresten dut gizakiak duen gaitasuna.

### Norentzat

Gurasoentzat, irakaslentzat, psikologoentzat, eta hezkuntzan interesatuta dauden guztientzat.

### Landuko diren gaiak eta edukiak

#### Gorputza autonomiarekin lantzeko ezaugarriak. Bai eskolan, bai eskolatik kanpo

- Jolasteko eta ikertzeko aukera izan ikaskuntzak barneratzeko.
- Autonomia eta inizatiba landu. Emmi Piklerren ikerketa (Moverse en libertad)
- Epairik gabeko guneak sortu eskolaren barruan

#### Mugimendu tailerra, gorputzarekin jolasteko aukera. Espresio-gunea

- Arno Sternen ikerketa pintura arloan ([www.arnostern.com](http://www.arnostern.com))
- Mugimendu tailerra. Ezaugarri edukatiboak libertatean mugitzeko
- Espresioa gorputzarekin. Energia mugimenduan. Naturaltasuna, bapatekotasuna, sorkuntza
- Materiala (ohialak, zapiak, ..., e.a.)
- Musika

### Metodologia

**Saio teorikoak:** hitzaldien eta argazki digitalen bidez eduki teorikoak emango dira

**Saio praktikoak:** mugimendu-tailerra praktikan jartzea gorputzarekin espresioa lantzeko

\*Benjamin BARANDALLA AZKUETA. Goputz-heziketa irakaslea 1994tik. Gaur egun Leizaran BHI-an (Andoain) lanean. **Baleube** espresio-tailerren (pintura, buztina eta mugimendua) arduraduna 1995Etik (Donostia).

\* *KOPURU MUGATUA* \*

# m a t r i k u l a

**Matrikula epea:** [maiatzaren 31 arte](#).

	<b>Ikastaro 1</b>	<i>edo</i> <b>2 ikastaro</b>
<b>Ikastaroen prezio arrunta</b> .....	95 euro	150 euro
<b>Prezio murriztuak:</b>		
- <b>Hazi Hezi</b> ko harpideak .....	80 euro	130 euro
- <b>hik hasi</b> ko harpideak .....	60 euro	100 euro
- <b>Hazi Hezi + hik hasi</b> ko harpideak .....	50 euro	90 euro
- Langabetuak .....	60 euro	100 euro
- EHUko ikasleak .....	50 euro	90 euro

\* Ikastetxeko harpidetza bakoitzaz irakasle bat balia liteke.

## **Ordainketa:**

- Zure matrikula aintzat hartua izan dadin, diru-sarrera egin beharra duzu kontu zenbaki honetan:  
EUSKADIKO KUTXA 3035 - 0036 - 15 - 0360062005
- Diru-sarrera egiterakoan, jarri matrikulatuaren izena eta bi abizenak.
- Ordain-agiririk ez bidali.
- Ikastaroan lekurik ez badago edo ikastaroa egiten ez bada, dirua itzuli egingo zaizu.

Matrikula [www.hikhasi.eus/topaketak](http://www.hikhasi.eus/topaketak) helbidean sartuz.

**Adi! Ekainaren 16an mezu bat** jasoko duzu zure *helbide elektronikoan*, Topaketen egitaraua eta dagokizun ikastaroko xehetasunak adieraziz.

**\*Oharra: 2 ikastarotan parte hartu behar dutenek (bata Donostian eta bestea Leioan), bi matrikula txartel bete behar dituzte, ikastaro bakoitzarentzat bana.**

*Obarra:* antolatzaileen esku gelditzen da programari behar diren aldaketak egitea.

# Antolatzaileak



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea  
**Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila**

# Babesleak



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Donostiako Udala**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA